

# INTXORTAKO GUDA

Lau eguneko oldarraldiari eutsi ziotenen larruan sartuta oroitzeko dute urteurrena

**I**nor gutxi ausartzen da memoria historikoa berreskuratu eta belaunaldi berrietara hedatzeak duen garrantzia ezbaian jartzera, gertakari horiek aski balio baitute “nondik gatoz” eta “nora goaz” galderei erantzuna ematerako orduan. Hori ondo baino hobeto dakite Intxorta 1937 kultur elkarteko kideek ere eta horregatik antzeztuko dute, aurtun bigarrenegoz, orain 77 urte Elgeta eta Elorrio artean dauden Intxorta mendietan gertatutakoa: lau eguneko oldarraldiaren ostean, Molak gidaturiko frankistek Intxorta hartu eta handik Bizkaia bere egiteko bidea ireki zuten. Bihar, hilak 27, dozenaka pertsona oldarraldi horretan parte hartu zutenen larruan sartuko dira, eta, historia-ko pasarte hura gogora ekartzeaz batera, hildako gudariak omendu eta egun osoko jaia ospatuko dute. Esan gabe doa deialdia interes duen edonori zabalik dagoela.

## ELGETA: BIZKAIA HARTZEKO GAKOA

Bi bataila garrantzitsu eman ziren Elgetan, bata 1936ko urriaren 4an eta, bigarrena, 1937ko apirilaren 20tik 24ra bitartean. Bigarren hori da bihar Intxorta mendietan antzeztuko dutena, baina, hura ulertzeko, aurrekariak nabarmendu dizkigu Josuren Murgizu Intxorta 1937 kultur elkarteko kideak: «36ko urrian hartu zuen Molak Gipuzkoa. Debaraino iritsi eta, Arrasate hartuta, Bergarara iritsi zen». Bere asmoa lurraldea hartzen jarraitzea zela gaineratu du Murgizuk eta, hala, hasiera batean Bizkaian jarri zuen begia. Tropa frankistak Bergara eta Arrasaten finkatu eta handik Elgetan zegoen frontea eraistea zen bere lehen asmoa. Murgizuren hitzetan, Molak bazekien Elgeta hartuz gero Elorriora jaitsi eta Bizkaia «erraz samar» hartzeko modua izango zuela, «bal-  
din eta bi lurraldeak bereizten zituen barrera defentsiboa desgitea lortzen bazuen». Baina gauzak ez ziren hark uste bezala

 **OROIMENA** / [amalur.artola@gaur8.info](mailto:amalur.artola@gaur8.info)

Gure historia oroitzeko era ezberdinak daude, baina, maiz, ez da erraza izaten memoriaren biziraupena aisialdiaren esparrura eramatea. Intxorta 1937 kultur elkartearen ekimenez, Elgetan sartuta frankistek Bizkairako sarbidea izan zuteneko unea birsortuko dute dozenaka lagunek, orain 77 urte oldarraldia izan zen leku berean.



Gudariak, 1936 eta 1937 artean, Intxortako lubakietan. Talde argazkian janariz betetako marmitak eta horiek gora igotzeko erabilitako mandoetariko bat ere ikus daiteke. SABINO ARANA FUNDAZIOA



suertatu: Gipuzkoan batailak galtzen zihoazen neurrian, miliziano eta gudariak atzera egin zuten eta Elgetan bildu ziren, Bizkaia eta Gipuzkoa arteko muga desiratu horretan indarra egin asmoz.

Aldi berean, urriaren hastape-  
netan Jesus Monzonek eskura-  
tutako armamentua iritsi zen  
herrira: «Material mordoa eros-  
tea lortu zuen, txekiarra batez  
ere, eta Lezora iritsi behar zuen  
nabigatzaile baten bidez milaka  
arma sartu zituen portura. Or-  
dura arte gudariak eskura zute-  
narekin egiten zuten borroka,  
Gipuzkoa lau gauzarekin defen-  
datu zuten, eta orain, zaharrak  
izanda ere, armak zituzten».

Gauzak hala, urriaren 4an  
saiatu zen lehendabizikoz Mola  
Elgeta hartzen. Baina ez zituen  
Intxortako milizianoak usteka-  
bean hartu eta jeneral frankista-  
ri etorri zen bidetik joatea beste-  
rik ez zitzaion geratu: «Sekulako  
jipoia eman zioten Molari. Ha-  
malau pertsona gaitibu hartzea